

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	Biele s.a.
2. Sektorea:	Industria
3. Langile kopurua:	240
4. Webgunea:	biele@biele.com
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Guk makina kateak egiteko ditugu, egur, metal, eskaiola...horiek manipulatu eta produktu finala lortzeko makina kateak.</p> <p>Bezeroaren beharretara moldatzen gara.</p>

Harremanetarako datuak

Solaskidearen izen-abizenak:	Maider Aizpuru Garmendia
Helbide elektronikoa:	m.aizpuru@biele.com
Telefonoa:	619282141

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Hizkuntza politika
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Bielek hizkuntza politika definitu du.</p> <p>Kontuan izan Bieleren bezeroak mundu guzikoak direla.</p> <p>Hori horrela gure lan hizkuntza ez da euskara edo gaztelera mugatzen, baizik eta ingelesa, frantsesa, alemana eta bestelakoak gure artean edukitzea oso ohikoa da.</p> <p>Bestetik beste fabrika bat dugu Errioxan.</p> <p>Hori horrela izanik naiz eta gure artean oso ohikoa izan euskaraz lan egitea, bai idatziz eta bai ahoz, nahaspila sortzen ditu jendearen artean zer hizkuntzarekin lan egitea tokatzen den.</p> <p>Hau da, askotan emailak euskaraz Errioxara, bezeroari iritsi beharreko emailak batzuk, gaztelera, besteak euskaraz, besteak ingelesez.... Horrek gure lanean inefizientzi dezente sortzen ditu.</p> <p>Hori horrela praktika on bezala, eta naiz eta asko kostatu izan zaigun, hizkuntza politika bat definitu dugu, ez da euskara eta gaztelera definitzen duen hizkuntza politika bakarrik. Baizik eta euskara, gaztelera, frantsesa, ingelesa, eta alemana kudeatzen duen hizkuntza politika.</p> <p>Bielek proiektua egiten du lan, eta proiektu bakoitza bezero jakin bakoitzarentzat da. Hori horrela proiektu baten hasera bilera garrantzitsu bat egiten da, lantzamentu bilera deritzona, hor nolako proiektua saldu den adierazten da, eta bilera horretan definitzen da baita ere proiektu horretako hizkuntza zein den.</p> <p>Hizkuntza definizioaren arabera, proiektu horretan bezeroarekin harremanak suposatzen dituen email horiek definitutako hizkuntzan bidali behar dira. Horrek proiektua kudeatzen duten pertsonen itzulpen lana ekiditen die.</p> <p>Era honetara bezero euskalduna bada badakigu bere proiektuko hizkuntza euskara dela, bezero ingelesaren kasuan ingelesa erabili behar den bezala, edo frantsesaz...</p>

Bezeroak

Irteerako bileran (*lanzamiento*) erabakiko da proiektuan erabiliko den hizkuntza ahoz zein idatziz. Beraz, eta bereziki e-mailetan, ahalegina egingo da bileran adostu den hizkuntza errespetatzen. Horrez gain, modu mailakatuan, bezeroentzako dokumentazioa estandarizatuko da.

Idatzizko dokumentazioa

- Merkataritza-dokumentu/ -inprimakiak (fakturak, tiketak, aurrekontuak, emate-agiriak...).
- Komunikazioak: gutunak, mezu elektronikoak, faxak.